

zerbikas^{en}

8 gidak



Ikasketa eta zerbitzu solidarioa

**Astialdi
HEZITZAILEAN**



Argitaratze zuzendaria:

Aitziber Mugarra Elorriaga

Egilea:

Rafael Mendia

Aholkularitza:

ZERBIKAS Fundazioa

Laguna kalea, 5 beheara

(Harrobi plaza)

48003 Bilbao

Tel: 618 159 269

info@zerbikas.es

www.zerbikas.es / www.zerbikas.eus

AISI-HEZI Fundazioa

Erronda kalea z/g (Bolunta)

48005 Bilbao

Tfno.: 946 569 208

info@aisi-hezi.org

www.aisi-hezi.org

Itzulpena:

Agurtzane Mallona

Azaleraren irudia:

Lourdes Puertas eta Asier Sagasta

Diseinua:

Arantza Lizarralde

lizarralde.arantza@gmail.com

ISBN: 978-84-697-4735-3

L.G.: BI-1255-2017



Aitorpena-Ezkomertziala-Berdinpartekatuta (by-nc-sa): Ez da onartzen Komertzio erabilerarik, ez jatorrizko bertsiarena, ezta, izan daitezkeen deribazioena eta hauen banaketa jatorrizko obraren lizentzia berberarekin egin behar da.

1. Astialdi hezitzailea 4
2. Jokaleku berriak astialdi hezitzailean 5
3. Esperientziaren pedagogia: proiektuak eta jolasa 7
4. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa, gizarte baliagarritasun handiko proiektua 8
5. Norberaren aldaketarako eta gizarte eraldaketarako ikaskuntzak 10
6. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu bat eraikitzea 11
7. Erkidegoan sareak sortzea astialdi hezitzaileaz baliatuz 12
8. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa astialdi hezitzaileko hainbat testuingurutan 19
 - I+Z astialdi hezitzaileko talde egonkorretan
 - I+Z udalekuetan, kanpamenduetan eta naturako jardueretan
 - I+Z gazteen talde, elkarte eta ekipamenduetan
 - I+Z haurren eta gazteen jarduera fisikoetan eta kiroleetan
 - I+Z eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiai
9. Gure astialdiko taldearen ateak eta leihoak irekitzea 28
10. Baliabideak 29

AURKEZPENA

Zerbikas Fundazioak eta AISI HEZI Fundazioak gida hau aurkeztu nahi dugu, astialdiko hezkuntzak duen garrantzia azpimarratzen duena, astialdia eremu egokitzat hartzen baitugu gure haurrengan eta gazteengan herritartasun arduratsua eta solidarioa garatzeko.

Gida honek astialdiko talde hezitzaileei proposamen pedagogiko bat aurkeztu nahi die, neska-mutilengan herritartasun aktiboa sustatzeko. Hala, proposamen horrek elkartasuna bizitzeko aukera eman nahi die, bizitzarako ikaskuntza erabilgarriak eskaintzen dizkie, oinarritzko gaitasunak indartzen dizkie, giza eskubideen defentsara eramaten ditu eta bizitzarako trebetasun jakin batzuk ematen dizkie, gainerako herritarrekin sormenez eta elkartasunez moldatzeko. Pertsona guztien eskubideen defentsaren bidean jartzen ditu eta beren prestakuntza ibilbidean ikuspegi berriak eskaintzen.

Gidak, lehenengo orrietan, astialdi hezitzailearen oinarri pedagogikoak azaltzen ditu eta planteamendu horren hezkuntza prozesuan erabiltzen diren bi estrategia gakoetan sakontzen: proiektuen pedagogian eta jolasetan. Ondoren, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa zer den aurkezten du, gizarterako baliagarritasun handiko proiektua. Aurkezpen horretatik abiatuta, Astialdi Hezitzailean Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu bat sortzeko prozesua deskribatzen du. Era berean, lantzen diren ikaskuntza nagusiak azpimarratzen ditu eta gaur egun astialdiko hezkuntzan dauden askotariko errealitateetan garatu daitezkeen proiektu mota desberdinetan sakontzen du.

ZERBIKAS Fundazioa
AISI HEZI Fundazioa

1

ASTIALDI HEZITZAILEA

Familiarekin –hezkuntza eremu nagusia– eta ikastetxearekin –hezkuntza formalerako eremua– batera, astialdiak ere badu garrantzia, eremu hezitzaile bat baita. Eremu hezitzailea da bertan harremanak eraiki daitezkeelako, proiektuak sortu, balioak esperimentatu, bizipen esanguratsuak eduki, herritartasuna eraiki, bizitzatik ikasi...

Astaldi Hezitzailea Hezkuntza Proiektu batean oinarritzen da, haurtzaroko eta gaztaroko bizi esperientziak aberastea helburu duena. Hezkuntzaren asmoa egituratzen du eta, horregatik, proposatzen diren xedeak, helburuak, hezkuntza harremana, antolaketa, hezkuntza ibilbidea eta hezkuntza esperientziak islatzen ditu.

Astaldi Hezitzailea askapenerako denbora da, pertsonalizazio eta gizarte eraldaketako prozesuak sortzen dituen denbora.



2

JOKALEKU BERRIAK ASTIALDI HEZITZAILEAN

Mendearen hasierak astialdiko erakundeen kopurua gutxitzea ekarri du, baina, aldi berean, aisiazko jardueretan handitu egin dira hezkuntzarako aukera berriak eta, hala, jarduera horiek hezitzaile bihur daitezke.

Interes gune jakin batzuen inguruan egituratzen diren taldeak aipatu nahi ditugu, ekiteko aukera historiko bat aprobetxatzen dutenak. Aipatutako interes gu-
neak hauek izan daitezke, besteak beste: ekologia, musika, dantza, antzerkia, kirola, astronomia, komu-
nikazioa, pintura, politika, elkartasuna...

Ekimen horiek guztiak, berriak batzuk, hezitzaileak izan daitezke pertsonaren garapen integrala helburu badute eta neska-mutilak “zerbaitetan aritzeko” edo “entretenezko” proposamenak egiteaz gainera, pertsonari banaka eta gizartean hazten lagunduko dioten proposamenak egiten badituzte.

Beharbada, gutxienekoa gaia izango da, eta garrantzitsuena, berriz, banaka eta taldean hazteko aukera ematen duten prozesuak, herritar aktibo izaten ikas-
teko.

Nolanahi ere, astialdi hezitzailea gure erkidegoetako haur, nerabe eta gazteentzat ikasteko eta gaitasunak garatzeko eremu bat da, eta ez jolaserako edo entretenezko denbora hutsa.

Testuinguru eta errealitate horietan, “pertsona eragile berriak” ere azaltzen dira. Orain arte, beren rol hezitzaileaz jabetu ez ziren pertsonak. Eragile berri horiek lagundu dezakete bideratzen ari diren jarduera hori jarduera egonkor bat izaten, osagai hezitzaileak izango dituen eta, banaka zein gizartean, pertsonak hazteko eremu bihurtuko dena, hau da, benetako herritartasun eskola bihurtuko dena.

3 ESPERIENTZIAREN PEDAGOGIA: PROIEKTUAK ETA JOLASA

Astialdi hezitzaileak bizipenetan edo esperentzian oinarritutako pedagogian ditu bere erroak. Pedagogia horren oinarritzko printzipioa da neska-mutilak banaka eta gizartean hobeto garatzen direla ikaskuntzako esperentzia irekietan modu aktiboan parte hartzen dutenean.

XX. mendearen hasieratik gaur egunera arte, pedagogoko askok aberastu dituzte hezkuntza proposamenak eta eskaini dituzte elementu gakoak astialdi hezitzailean ekimenak garatzeko:

John Dewey-k (1859-1952) esperentziaz elikatzen den eta erkidegora bideratzen den hezkuntza proposatu zuen.

Ovidio Decroly-k (1871-1932) proiektuen metodoa eskaini zuen.

Antón Semenovitch Makarenko-k (1888-1939) "Lanaren bidezko hezkuntzari" buruz hitz egin zigun eta planteamendu hori erabili da gazteentzako auzolandegietako esperentzia ugari-tan eta taldeak gizarteratze eremuak direla azpimarratzeko.

Baden-Powell-ek (1857-1941) scout mugimendua sortu zuen, erantzukizunaren pedagogia bultzatzen duena. Horren arabera, besteengana-ko zerbitzua bitarteko eta xede da, aldi berean.

Celestin Freinet-ek (1896-1966) haurren jakin-mina eta ohiko jarduera baliatzen ditu eta bi-deak irekitzen dizkio ahalegin esperentalari, haurren adierazpen askeari, lankidetzari eta ingurunea ikertzeari.

Hezitzaileen talde esanguratsu horretara gehitu behar ditugu **Paulo Freire** (1921-1997) eta **Carl Rogers** (1902-1987). Lehenengoak arazoetan oinarritutako hezkuntza proposatu zuen eta elkarriketa ardatz duen ikaskuntza, gogoeta-ekintzako etengabeko prozesuaren bidez gauzatzen dena. Bigarrenak, haurren pedagogikoaren inguruko ikerketak egin zituen eta komunitate pertsonalizatuak eraikitzearen garrantzia azpimarratu zuen, zalantzarik gabe, alderdi oso garrantzitsuak gure hezkuntza lanean.

Proiektuak

Astialdi hezitzaileko askotariko erakundeak, elkarteak eta taldeak aztertzen baditugu, guztiek ezaugarri komun bat dutela ikusiko dugu: guztiek erabiltzen di-

tuzten proiektuak taldeko bizitza garatzeko funtsezko tresna gisa.

“Enpresa”, “abentura”, “aurkikuntza”, “operazioa”, “kanpaina”... Izen bat ala beste eman, proiektuak dira, azken batean.

Proiektuen araberako ikaskuntzak taldearen konpromisoa eta motibazioa garatzen ditu, gero eta konplexutasun handiagoko erronkak proposatzen dituelako eta elkarlana bultzatzen duelako.

Proiektuaren faseak ezagunak dira, baina, hala ere, gogoratu egingo ditugu, labur-labur bada ere, eta horietako bakoitzak eskaintzen dizkigun aukerak azpimarratu: motibatzea, aukeratzea, gauzatzea eta ebaluatzea.

Jolasa

Proiektuen ondoan, jolasa da astialdi hezitzailearen pedagogiaren bizkarrezurretako bat. Jolasean aritzen gara komunikazioa errazteko, mundua ezagutzeko, pertsonekin topo egiteko. Zenbaitetan, proiektuen baitan, jolasean aritzen gara proiektura hurbiltzeko, errealitatea ezagutzeko edo mundua eta natura behatzeko. Astialdian, jolasa pertsonentzat eta taldeen-tzat esperientzia eraikitzailea da.

Jolasaren bidez, taldeko parte hartzaileek pertsonak ezagutzen dituzte, gauzak aurkitu, ikertu, eraiki... Hau da, beren gaitasunak garatzen ikasten dute. Gaitasun horiek, zalantzarik gabe, oso garrantzitsuak izango dira bizitzaren eskakizunei erantzuteko.

Azken batean, jolasa haurtzaroko eta nerabezaroko bizitzaren zati da, bakoitzak bere estiloan. Eta pertsona helduen bizitzan ere badu bere tokia.



4

IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA. GIZARTE BALIAGARRITASUN HANDIKO PROIEKTUA

IKASKETA ETA ZERBITZUA hezkuntza proposamen bat da, ikasketa prozesuak eta erkidegoari zerbitzu ematekoak proiektu bakarrean biltzen dituen, egoki egituratuta. Proiektu horretan parte hartzen dutenek ikasi egiten dute, inguruneko benetako beharren inguruan lan eginez, ingurune hori hobetzeko.

(Centre Promotor d'Aprenentatge Servei)

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa (IZS)¹ hezkuntza eredu bat da, bi osagai integratzean zentzua hartzen duena: Ikasketak helburu hezitzaile esplizitua du, jakiteak, tre-

1. ZERBIKASen hasieratik hitz egin dugu "Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaz", eta izen hori mantentzen dugu gure hasierako koherentzia mantentzeagatik, nahiz eta ZERBIKAS partaide den RED ESPAÑOLA DE APRENDIZAJE SERVICIO (REDAPS) delakoak "Ikaskuntza Zerbitzua" aipatzen duen kontzeptu berbera deskribatzeko. Gure aldetik, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioari aipatzeko I+Z siglak mantentzen ditugu euskeraz.

betasunak, jarrerak eta balioak eskuratzera bideratzen baita; *Zerbitzu Solidarioak* protagonisten interesa erkidegoaren zerbitzura jartzen du, eta, horrela, ikasketa eta herritartasun aktiboa gauzatzea lotzen ditu.

Proiektuen metodologiaz baliatuz eta ikasketa eta erkidegoarentzako zerbitzua uztartuz, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak ekintza-gogoeta prozesuak ikuspegi integratutik garatzea proposatzen du, horrela, balioak erakitzen eta sendotzen laguntzeko, hezkuntza prozesuan jakintza eta elkartasun sareak eraikiz haurren eta gazteen artean eta gizarteko askotariko eragileen artean.

Ikasketa eta Zerbitzuko proiektu horiek astialdi hezitzaileko taldeetan aurrera eramateak askotariko aukerak eskaintzen ditu, besteak beste, honakoak:

Hezkuntza prozesuaren garapenerako:

- Proiektu bat definitzen da, fase guztiekin, hasieratik bukaerara.
- Balioen, bizitzako trebetasunen, gizarte eta herritarren gaitasunen eta abarren ikaskuntza esanguratsuari laguntzen dio, aplikazioa erreal delako, praktikoa.
- Gogoetarako eta nork bere burua ebaluatzeko aukerak eskaintzen ditu.



- Ebaluazio edo balorazio zintzoa ahalbidetzen da, jarraitua eta integratua.

Talde hezitzailean parte hartzen duten haur, nerabe eta gazteentzat:

- Parte hartzen dutenak ahalduz dituzte eta, banaka zein taldean, beren protagonismoa aktibatzen.
- Testuinguruaren eta zereginen prozesuen ikerkuntzan lehenengo urratsak ematen dituzte.
- Talde edo elkarte bateko kide izateko sentimendua lantzen da.

Erkidegoarentzat eta astialdiko talde hezitzailearentzat:

- Herritarren parte hartzeari laguntzen dio.
- Mundu errealeko arazoak lantzen dira.
- Interes eta behar komunak lotzen dira eta, horrela, produktu eta zerbitzu partekatuak sortzen dira.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak astialdiko talde baten bizitzarako hezkuntza osagai gakoaren garapena sustatzen du: jakiteak, trebetasunak, balioak, ahalduz eta autoestimatuaren garapena.

5 NORBERAREN ALDAKETARAKO ETA GIZARTE ERALDAKETARAKO IKASKUNTZAK

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa elkertasuna ardatz duen hezkuntza eredua da. Herritarren balioak eta kultura ekintzailea sustatzen ditu eta herritarren parte hartze arduratsua bultzatzen du, erkidegoaren beharrei erantzuteko orduan.

Astaldi hezitzaileko talde batek berez sei ikaskuntza multzo handi izango lituzke, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren planteamenduekin bat datozenak. Ikaskuntza horiek norberaren hazkundeari laguntzen diote eta errealitatea eraldatzeko ekintzen berri ematen digute.

1 Eguneroko bizitzaren esparruan hezte

Astaldiko hezkuntzaren esparrua edo jokalekua eguneroko bizitza da. Ingurune horrek laguntzen du norberaren autonomia, bereizteko irizpideak, jarduteko ildoak eta independentzia lantzen, askotariko egoerei aurre egiteko.

2 Europar herritartasunerako gaitasun gakoak

Gaitasun gakoak pertsona guztiek behar dituzte beren burua errealizatzeko eta garatzeko, baita herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta lan egiteko ere.

3 Balioetan hezte

Gizarte eta hezkuntza ikuspegitik, balioak gizakion portaera gizarte eraldaketara eta pertsonen arteko harremanetara bideratzen duten erreferenteak dira.

4 Prosozialtasuna

Prosozialtasunak besteei zuzendutako ekintza positiboegi egiten die erreferentzia. Ekintza horiek bestearenganako estimuan oinarritzen dira, eta elkarrekikotasun positiboa sortzeko aukerak areagotzen dituzte, baina inongo saririk bilatu gabe.

5 Bizitzarako trebetasunak

Munduko Osasun Erakundeak (MOE) 1993an azpimarratu zuen “bizitzarako trebetasunak”

“pertsonei eguneroko bizitzako eskakizunei eta erronkei behar bezala erantzuten laguntzen dieten abileziak edo trebetasunak” direla. Haurrengan, nerabeengan eta gazteengan gaitasun psikosoziala sustatzera bideratutako hezkuntza programen elementu garrantzitsuenetako bat dira.

MOEk hamar trebetasun proposatu zituen: erabakiak hartzea, arazoei irtenbidea ematea, pentsamendu sortzailea, pentsamendu kritikoa, komunikazio eraginkorra, pertsonen arteko harremanak, nor bere burua ezagutzeta, empatia, emozioak kudeatzea eta estresa kudeatzea.

6 Giza Eskubideak eta Haurren Eskubideak

Heziketak giza eskubideak eta haurren eskubideak printzipio etikotzat eta jokatzeko arau unibertsaltzat hartzen dituenean, talde hezitzailearen errealitatea eraldatzen du, zalantzarik gabe.

6 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOKO PROIEKTU BAT ERAIKITZEA

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa gizartea aldatzeko hezkuntza proposamen bat da, astialdi hezitzaileko taldeentzat.

Proiektu solidario horren osagaietan sakonduko dugu jarraian:





PROIEKTUAREN FASEAK	TALDEA
1. PRESTATZEA	
2. MOTIBATZEA	<ul style="list-style-type: none">• Interneten bilaketak egingo ditu.• Elkarrizketak egingo dizkie erkidegoko pertsona esanguratsuei.• Hainbat egoeraren inguruko erreportajeak eta dokumentalak ikusiko ditu.• Erkidegoaren beharrak identifikatuko ditu eta, taldearen garapen maila abiapuntu hartuta, behar horiei aurre egiteko aukerak zehaztuko ditu.• Ikasketa eta zerbitzuko esperientziak ikus daitezke Youtuben, Vimeon eta beste kanal batzuetan.
3. HASTEAK	<ul style="list-style-type: none">• Parte hartze aktiboa du erkidegoa ezagutzeko jardueretan, pista jokoetan eta abarretan.• Ikuspegia gehiago zabal dezakegu, beste herrialde eta kultura batzuetako beharretara hurbiltzeko.

TALDE HEZITZAILEA

- Aldez aurretik, testuingurua aztertuko du eta hobetu daitezkeen egoerak identifikatuko du, esku hartzean parte hartuko duten pertsonengan edo talde osoarengan pentsatuz.
 - Taldekide bakoitzaren eta talde osoaren indarguneak aztertuko ditu, egin daitezkeen proposamenetako bakoitzean taldekide bakoitzarentzat eta talde osoarentzat hazkunderako aukerak identifikatzeko eta sendotuko diren bizitzarako ikaskuntzak zehazteko.
 - Proiekturen batean erkidegoko zein erakunderekin batera lan egin daitezkeen aztertuko du.
-
- Motibazio prozesua Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko ekimenaren abiapuntuaren araberakoa da.
 - Erkidegoko pertsona garrantzitsuak gonbidatu daitezke, taldeak eta elkarteak bisitatu, pista joko bat antolatu taldeak interneten bilaketak egin ditzan erkidegoarentzat arazo diren egoeren inguruan: sentitu eta bizi diren beharrak, ingurumenari lotuta, norberaren arretari, beste pertsona batzuen beharrei edo erkidegoko bizitzan ikusten diren gabeziei.
 - Ondoren, behar horien guztien artean lehentasunak erabaki beharko dira eta aldaketa eragiteko dauden aukerak ikusi.
-
- Hirian edo auzoan behaketa ariketa bat proposatu dezake, pentsamendu kritikoa eta enpatia sustatuz, hobetzeko aukera eskaintzen duten egoerak aztertuz hasita.
 - Ahalegintzen da doitzan errealitatearen analisi hori aurrean izanik taldeak proposatzen dituen ekintzak eta ekintza horiek aurrera eramateko benetako aukerak.
 - Prozesu horretan, pertsonen eta taldearen ondoan egongo da, lagun eginez.
 - Fase bakoitzean, ekintza aurrera eramateko behar diren ikaskuntzak identifikatuko dira.

PROIEKTUAREN FASEAK	TALDEA
<p>4. AUKERATZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aukeratzea hainbat modutara egin daiteke, beti ere aukeratzen den hura ongi definituta badago eta argi badago. Horretarako, beharrezkoa da proiektuak eta kezkak elkarrengana hurbiltzea, eta gutxiengoan ideiak integratzeko ahalegina egitea. Hala, proiektuek ahalik eta parte hartzerik handiena bilatu behar dute. • Aurrera eramango den proiektua aukeratzeko orduan, komeni da gure indarguneak eta mugak ongi ezagutzea (taldeak bere burua ezagutzea), taldearen benetako aukerak kontuan hartuta, neurrikoa izango den ekintza bat hautatzeko, zehatza eta egingarria, frustraziorik eragingo ez duena.
<p>5. PROIEKTUA PLANIFIKATZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bilera edo biltzar orokor batean, taldeak lortu nahi dituen helburuak definituko dira. Helburu horien arabera izango dira azken proiektuan zehaztuko diren zereginak. • Ondoren, lantegi edo tailer bakoitzak bere lan plana egituratuko du. Lantegi guztiek izango dute besteen plangintzaren berri, taldeen arteko komunikazioa eta proiektuaren helburu komunaren alde elkarrekin lan egitea errazteko. • Plangintza prozesu horretan taldean lantzen ari denaren inguruko gogoeta egiteko tarte batzuk ere hartuko ditugu. • Lantegiak edo lantaldeak ekintzaren aurretik egin daitezke, edo ekintza gauzatzen den bitartean.

TALDE HEZITZAILEA

- Talde hezitzaileak motibatze fasean sortzen diren proiektuak egoki formulatzen lagunduko du eta saioren dinamizazio lana egingo du, proiektu horien abantailak eta eragozpenak aztertzeko, astialdiko zentroaren prestakuntza arloekin duten lotura ikusteko eta proiektu bakoitzarekin garatu nahi diren gaitasunak zehazteko.
- Talde hezitzailearen ekarpena garrantzitsua da. Izan ere, aldeko eta kontrako alderdiak baloratzen lagunduko du, eta dauden aukera guztiak aztertzen (pentsamendu kritikoa), azkenean aurrera eramango den esperientzia erabakitzeko (erabakiak hartzea).
- Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko esperientzia bat programatzeko orduan, oso baliagarria da eskaini nahi dugun zerbitzuaren hartzaileak zein egoeratan dauden jakitea, hurbiltasun horretatik enpatia sentimendua lantzeko. Horrek zentzu handiagoa emango dio gure jarduerari.
- Pentsamendu sortzaileak fase honetan egiteko garrantzitsua izan dezake. Hainbat esperientzia aurkeztu daitezke. Ekintzaren orijinaltasunak motibatzeko balio dezake eta lagungarria izango zaigu, baita ere, aurrera eramango dugun proiektuaren zabalkundea egiteko orduan.
- Zer ikasi behar du taldeak proiektua egoki planifikatzeko?



PROIEKTUAREN FASEAK	TALDEA
<p>6. EKINTZA GAUZATZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erkidegoari aurreikusitako zerbitzua ematea, errealitateak iradokitzen dizkigun egokitzapenak eginda. • Bestalde, konturatu zer ematen digun erkidegoari zerbitzu bat eskaintzeak, elkarlan horretan taldekide ditugun pertsonetikiko eta erakundeetikiko harremani begiratuta. • Garrantzitsua da gauzatze fasean une batez gelditu eta aztertzea zer egiten ari garen, zer ikusten ari garen, zein zailtasun ditugun eta nola ari garen horiek gainditzen, nola ari garen betetzen esleitu zaizkigun zereginak, nola laguntzen diogun elkarri, etab. • Proiektua erregistratzea, komunikatzea eta zabalkundea ematea.
<p>7. EBALUATZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Alde batetik, taldearen beraren ebaluazioa egin behar da, horren barne kontuan hartuta bai liderren lana eta bai talde hezitzailearena. • Ebaluazio horren helburua izango da aurrera eraman duten ekintza eraldatzaileaz konturatzeta, ikasi dutenaz jabetzea eta beste pertsona batzuei ekarri dizkieten onurak azpimarratzea.
<p>8. AMAIERAKO FESTA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Festak esanahi ludikoa du eta bertan parte hartuko dute, taldekideez gainera, ekintzaren hartzaile izan diren pertsonak edo haien ordezkariak. • Erkidegoari aukera ematen zaio taldeak egindako lana aitortzeko. Aukera paregabea da guztiok konturatzeko zein garrantzitsua den beste pertsonen alde lan egitea eta zenbat ikasten den bide horretan.

TALDE HEZITZAILEA

- Taldeko edozein prozesutan normala da desadostasunak sortzea eta gertaera berbera interpretatzeko modu desberdinak egotea.
 - Krisi momentu horiek benetako aukera bihur daitezke asertibotasuna lantzeko, emozioak eta sentimenduak kudeatzeko, eta arazoak eta gatazkak gainditzeko.
 - Beste edozein proiektutan bezala, epeek, ezustekoek eta xehetasun txikiek edonor urduri jarriko dute. Baina egoera horiek aitzakia paregabea izan daitezke tentsioen eta estresaren kudeaketan sakontzeko.
 - Taldearekin batera zehaztu beharko dira gogoeta egiteko eta ikasten ari garenaz jabetzeko uneak.
-
- Ebaluazioa aukera paregabea izan daiteke hainbat trebetasun psikosozial lantzeko. Horretarako, besteak beste, egokia da gogoratzea nola eman zitzaion irtenbidea halako gatazkari. Gainera, lortutako helburuen analisi kritikoa egitea ere komeni da.
 - Gure lana ez da amaituko talde hezitzaileak ebaluatzen ez badu. Talde hezitzaileak baloratuko ditu hasieran proposatutako balio, trebetasun eta gaitasunetako ikaskuntzak eskuratu ote diren. Gainera, gutxiago garatu diren beste alderdi batzuetan sakontzeko beharra ere jar dezake agerian. Horretarako, komeni da sintesi bat egitea eta informazioa ematea, proiektuaren garapenean norberak lortutakoaz gainera.
-
- Ospakizunen helburua da eskuratutako ikaskuntzak sendotzea eta jarraitzeko gogoia piztea.

7 ERKIDEGOAN SAREAK SORTZEA ASTIALDI HEZITZAILEAZ BALIATUZ

Astialdi Hezitzailearen ikuspuntutik, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak aukera ematen du gizarte sareak eraikitzeko. Sare horiek pertsoneri lagunduko diete banakako eta taldeko baliabideak aktibatzen, etorkizunari modu proaktiboan aurre egiteko.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak proiektuak erkidego baten barruan eramaten ditu aurrera. Horregatik, proiektuak gauzatzeko taldeen, erakundeen eta gizabanakoen arteko harremanak behar ditu eta harreman horiek errazten ditu. Hala, proiektuan parte hartzen duten pertsonen harremanetako kapitala handitu egiten da eta baliabideen osagarritasuna ahalbidetzen da. Bide horretatik, gero eta pertsona, talde eta erakunde gehiagok aitortzen dute astialdiaren hezkuntza balioa, bai eta Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektuek erkidegoaren garapenera egiten dioten ekarpena ere.



8

IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA ASTIALDI HEZITZAILEKO HAINBAT TESTUINGURUTAN

1 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA astialdi hezitzaileko talde egonkorretan

Inklusio proiektuak

- Neska-mutilek Braille eta Keinu Hizkuntza ikastea eta materialak eta tresnak sortzea, beste batzuei erkidegoan moldatzen laguntzeko.

Kultur eta arte proiektuak

- Irakurketa sustatzea, erkidegoko liburutegiak eta liburutegi mugikorrak.
- Tokiko tradizioak berreskuratzea eta/edo haien zabalkundea egitea.
- Erkidegoko hormak eraikitzea eta mantentzea.

Gizarte eta erkidegoko proiektuak

- Taldeak erkidegoko ekimenetan parte hartzea.
- Belaunaldien arteko elkarriketa eta adinekoei arreta eskaintzea.
- Auzoaren garbitasun egoera aztertzea eta udaleko arduradunei eta auzo elkarteei proposamenak egitea, irtenbideak bilatzeko.
- Pertsona guztientzako bide lagunak eta hiri lagunkoiak.

Teknologia proiektuak

- *Zibermanagerrak*.
- “Conecta Joven” proiektua. Adineko pertsona helduentzat informatika arloko hezkuntza eta gaikuntza proiektuak.

Osasun hezkuntzako proiektuak

- Jarduera fisikoa sustatzea haurren eta gazteen bizi kalitatea hobetzeko.
- Ohitura osasungarriak, nor bere burua zaintzea, beste pertsonak zaintzea eta ingurumena zaintzea sustatzeko zabalkunde kanpainak.

- ☑ **Komunikazio proiektuak**
 - Informazio kanpainak, zabalkundea emateko kanpainak eta herritarrak kontzientziatzeko kanpainak.
- ☑ **Berdinen artean elkarri laguntzeko proiektuak**
 - Berdinen artean elkarri laguntzeko proiektuak, eskolaz kanpoko hezkuntza indargarriko jardueretan.
 - Elkarrekin ikasteko taldeak.
- ☑ **Beste erakunde batzuekin sarean zerbitzua eskaintzeko proiektuak**
 - Gobernu Kanpoko Erakunde baten proiektuei lotutako kanpaina zehatzak.
 - Tokiko Agenda 21.
 - Jarduerak, azoka txikiak, bigarren eskuko azokak, jaialdiak...
 - Noizean behingo jarduerak adinekoen egoitzaren batean.
 - Gaixoei bisita egitea.
 - Etorkinei harrera egitea.
 - Bide hezkuntzako kanpainak.

2 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA

udalekuetan, kanpamenduetan eta naturako jardueretan

- ☑ **Natur inguruneetako proiektuak**
 - Iturriak, ibaietako zatiak, bideak eta bidexkak, basoak eta abar garbitzea.
 - Birziklatzearen filosofiari eta ekintzei zabalkundea ematea eta horiek aurrera eramatea.
 - Natur baliabideen kontsumo arduratsua sustatzea.
 - Bizitza osasungarriko proiektuak parte hartzaileentzat.
- ☑ **Energia iraunkorrei lotutako proiektuak**
 - Energia alternatiboak ekoizteko gailuak diseinatzea eta instalatzea.
- ☑ **Hondakinen kudeaketari lotutako proiektuak**
 - Hondakinak murriztea eta tratamendurik gabeko isurketak zerora murriztea eta erkidegoan alderdi horien eragina aztertzea.



- ✓ Mugikortasun iraunkorrari lotutako proiektuak
 - Mugikortasun arduratsua, bideak markatuz, seinaleztatuz eta garbituz.
 - Joan-etorrietako sistema arduratsuek sustatzea: oinez, bizikletan, etab.
- ✓ Inguruko herritarrei bideratutako erkidegoko proiektuak
 - Erkidegoarentzako zerbitzu baliagarriak: ermitak, iturriak, gurutzeak... garbitzea eta zaharberritzea.
 - Toki publikoetan aurrealdeak eta hormak margotzea eta konponketak egitea.
 - Landako lanetan laguntzea.
 - Tokiko museo txikiak mantentzen laguntzea, piezak garbitzea, sailkatzea, inbentarioak egitea...
 - Herriko neska-mutilentzat aisiarako jarduerak antolatzea.
 - Adineko pertsoneri lagun egitea eta haiekin hitz egitea.
 - Festak, zirku ibiltaria eta horrelakoak antolatzen laguntzea.

3 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA

gazteen talde, elkarte eta ekipamenduetan

- ✓ Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko elkartasun proiektuak
 - Giza eskubideen eta bakearen defentsa eta zabalkundea.
 - Kolektibo jakin batzuen eskubideen defentsa eta zabalkundea.
 - Errefuxiatuei eta etorkinei harrera egiteko kanpainetan parte hartzea.
 - Gutxiengo etnikoen eta kulturalen aldeko kanpainak eta ekintzak.
 - Gure planetako herrien artean komunikatzeko ekimenak, gizarte sareez baliatuz.
- ✓ Elkartasunaren dimentsio ekologikoa eta ekologiararen dimentsio solidarioa sustatzeko proiektuak
 - Salaketa eta babes ekintzak, ingurumena zaintzen, sortzen eta birgaitzen lagunduko dutenak, gizarte osasungarriagoa lortzeko.

- ✓ Pertsona guztien arteko elkartasun proiektuak
 - Gizonen eta emakumeen ekintzak, sexuen arteko berdintasuna bultzatzeko, hezkuntzan, kulturaren, lan arloan, sindikatuetan, politikan eta abarretan.
 - Emakumeen kontrako indarkeria ekintzak salatzeko kanpainak.
 - Herritar lesbiana, gay, transexual eta bisexualen eskubideen defentsa.
 - Pertsonen arteko errespetuaren aldeko eta berdinen arteko indarkeriaren kontrako ekintzen dibulgazio kanpainak eta ekintzak: bullyinga, mobbing-a, ziberjazarpena, beste edozein jazarpen mota, gehiegikeria eta indarkeria.
 - Zibermentoreak eta zibermanagerrak prestatzea eta sareetan dagoen jazarpena jakinaraztea.
- ✓ Eguneroko bizitzako elkartasun proiektuak
 - Kultur ekimenak sustatzea.
 - Bizilagunek elkarri laguntzeko proposamenak.
 - Auzoan giro ona sortzeko kanpainak, "giro oneko auzoa".
 - Osasuna sustatzeko ekimenak.
 - Odol eta organo emaitzen talde eta mugimenduetan parte hartzea.

- Harreman, topaketa, truke ekintza, entzute eta adostasun sare txikiak sortzea, etxe bakoitzean, etxe multzo bakoitzean, auzo bakoitzean... sortzen joan daitezten eta, horrela, Gizarte Proiektu Berri Solidario bat sortzen lagundu dezaten.

☑ Haurrekin eta gazteekin edo haurren eta gazteen artean elkartasun proiektuak

- Arrisku psikosozial larriak dituzten haurrentzako ekintzak.
- Dagoeneko abian dauden ekimenekin bat egitea: "Hiri hezitzaileak", "Haurren hiria", "Agenda 21", etab.
- Belaunaldien arteko ekintzak.

☑ Aniztasun funtzionala duten pertsonekin edo pertsonen arteko elkartasuna

- Aniztasun funtzionala duten nerabeak eta gazteak gazte zentroko jardueretan ere sartzeari, sarbideak, altzariak, jarduerak eta erritmoak beren beharretara egokituz.
- "Hiri lagunkoiak" programa garatzea.
- Herritar ororentzat eskubide berdintasunaren eta aukera berdintasunaren inguruko proiektuak.

☑ Larrialdi egoerei eta babes zibilarri lotutako elkartasun proiektuak

- Lehen sorospenerako prestakuntza ikastaroak.
- Norberak, duen prestakuntza kontuan hartuta, larrialdiko laguntza emateko dituen aukerak ezagutzea: lurrikarak, erreskateak, uholdeak, etab.



4

IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA

haurren eta gazteen jarduera fisikoetan eta kirolean

- ✓ Bizitza osasungarriaren garrantziari eta balioari zabalkundea emateko proiektuak
 - Ohitura osasungarriei zabalkundea emateko kanpainak.
 - Ariketa fisikoa sustatzea, gaixotasunak prebenitzeko.
 - Erkidegoan "Osasun agenteen" taldeak osatzea, bizitza eta elikadura osasungarria sustatzen laguntzeko.
- ✓ Kirol proiektuak
 - Kirol jarduera arautuak, arautu gabeak edo aisiakoak aurrera eramatea adin desberdinetako jendearekin.
 - Jarduera inklusiboak garatzea.
- ✓ Kultur arteko proiektuak
 - Kultur arteko kirol jarduerak, esate baterako, "mundialitoa".
 - Beste kultura batzuetako herri kirolak erakustea eta egitea.

- ✓ Elkartasun proiektuak
 - Elkartasun helburua duten ibilaldiak, bizikleta irteerak, mendi ibilbideak, elkartasun kilometroak..., ekonomia eta gizarte gabezia edo ahultasun egoera bati laguntzeko.
 - Ibilaldiak eta bizikleta txangoak, seinaleak jaritzeko, bideak eta iturriak garbitzeko eta seinaleztatzeko.
- ✓ Jarduera fisikoei eta kirolei euskarri teknologikoa eskaintzeko proiektuak
 - Egurrez edo metalez kalean jokatzeko herri jokoak egitea, garraiatzeko modukoak
 - Instalazio publikoak mantentzeko lanak egitea.
 - Espezialitate bakoitzeko joko zelaia prestatzea eta mantentzea.
 - Adinekoentzat joko eta kirol jarduerak aurrera eramateko eremuak prestatzea: bolatokia, pentanka pista, igel toka, ziba, etab.
 - Blog bat egitea lehiaketen emaitzekin.
 - Mezu osasungarrien kanpainak egitea Twitterren eta beste gizarte sare batzuetan.



- ☑ **Joko garbia zabaltzeko proiektuak**
 - Joko garbia sustatzeko kanpainak.
 - Zaleen portaera gizalegezkoa sustatzeko kanpainak, eskola kirola animatzera joaten diren gurasoengandik hasita.
- ☑ **Adin txikiagoko taldeei laguntzeko proiektuak**
 - Hurrei kirola egiten laguntzeko jarduerak garatzea.
 - Haurren eta nerabeen lehiaketetan epaile lanak egitea.
 - Txapelketak antolatzea auzoko edo herriko haur eta gazte talde desberdinen artean.
 - Eskola kirolean edo haurren taldeetan entrenamenduko jarduerak, edozein espezialitatetan.

5

IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA

eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

- ☑ Beste pertsona batzuei laguntzeko proiektuak
 - Zibermanagerrak eta zibertutoreak sareetan adin txikiko neska-mutilei egindako jazarpena prebenitzeko.
 - Adinekoei gailu digitalak erabiltzen erakustea.
 - Sarean sentiberatze kanpainak egitea.
 - Sarearen bidez tokiko kanpainak sortzea, do-haintzak handitzeko (dirua, elikagaiak, odol emateak...).
 - Astialdi hezitzaileko beste talde batzuetako edo auzoko ikastetxeetako beste gazte batzuei laguntzea eskaintzea internet bidez, ikasteko zailtasunak badituzte, irakasgai bakoitzerako tutorialak sortuz, maila desberdinetan. (Tú a tú. Erreferentzia: IES Miguel Catalan, Coslada).

- ☑ Natur inguruneko proiektuak
 - QR kodeak erabiltzea bideak seinalatzeko, espezieak identifikatu eta izenak jartzeko, eremu eta tokien inguruko informazioa zabalitzeko, ibiltariei inguruko mapak emateko, etab.
- ☑ Komunikazio proiektuak taldearen barruan eta kanpoan
 - Auzoko elkarteei buletin digitalak, blogak eta abar egiteko laguntza eskaintzea.
 - Auzoko erakundeentzat blog bat sortzea, haien ikusgarritasuna handitzeko eta finantzaketa eskuratzen laguntzeko.



☑ Inklusio proiektuak

- “Irakurketa errazeko” proiektuen bidez, desgaitasun intelektual bat duten pertsoneri laguntza eskaintzea gailuak erabiltzen ikasteko.
- Errealitatearen mapaketa egitea, mugikortasun txikiko pertsoneri hirian mugitzea eragozten dieten hiri hesiak aurkitzeko.
- “OpenStreetMap” edo antzeko aplikazioak erabiltzea, auzoan hesirik gabeko ibilbideak sortzeko, “Hiri Lagunkoiak pertsona guztientzat” proiektuaren barruan.
- Komunikazio gabeziak dituzten pertsonekin komunikazioa errazteko gailuak egitea eta erabiltzea: komunikagailuak, komunikazio handigarri eta alternatiboa, etab.

☑ Taldearen bizitzari eta bizitza hori hobetzeari lotutako proiektuak

- Gailuak eguneroko bizitzan egoki erabiltzeko kode etikoa sortzea.
- Irteeretan, kanpamenduetan eta taldeko gainerrako ekitaldi eta jardueretan gailuak egoki erabiltzeko kodea sortzea.

☑ Inprimatze digitaleko eta robotikako proiektuak

- 3D inprimagailuak erabiltzea auzoko maketak egiteko, pertsoneri laguntzeko eta erkidegoarentzako zerbitzuak eskaintzeko.
- Robotikaz baliatuz, proposamenak egitea egoerak berregiteko, asmatzeko, eguneroko bizitzarako laguntza bilatzeko eta abarretarako.

☑ Erkidegoko bizitzari lotutako proiektuak

- Mapa digital bat egitea auzoan konponketaren behar duten puntu guztiekin, esate baterako, horma margotuak, zakarrentzi hautsiak, trafikoko seinale hondatuak, etab.

☑ Errealitatea agerian uzteko proiektuak

- Telefono mugikorrarekin film laburrak egitea, erkidegoan bizi diren egoerak agerian jartzeko.
- Auzoko elkarteetan iragarki txikiak egitea, zabalteko eta jendeari ezagutzera emateko.

9 GURE ASTIALDIKO TALDEAREN ATEAK ETA LEIHOAK IREKITZEA

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa astialdiko talde hezitzaileek haur eta gazte parte hartzaileen gogoeta errazteko, errealitatea eraldatzeko eta taldearen eta talde hori barne hartzen duen erkidegoaren arteko harremanak hobetzeko ekintzak sustatzeko egiten duen apustua da.

Taldeei aukera ematen die norberaren garapena eta gizarte garapena lantzeko, besteak beste, autoestimuari, portaera prosozialari, gizarte konpromisoari eta bizitzarako baliagarriak diren jakiteak hobetzeari dagokionez.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak pertsonen bizi baldintzak hobetzen ditu eta taldeko eta erkidegoko kide izatearen sentimendua indartzen du.

Azken batean, **Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa** hezkuntza proposamen bat da eta espiritu gizabidezkoa eta solidarioa garatzen du, erkidegoari zerbitzu bat eskainiz, esku hartzeko proiektu zehatz baten bidez.

Hezkuntza helburu argia du, bizitzarako erabilgarriak diren jakiteak, trebetasunak, jarrerak eta balioak garatzea lortu nahi baitu.

Protagonisten interesa mugiarazten du, erkidegoaren zerbitzura.

Astialdiko taldearen bizitza herritartasun aktiboa gauzatzeari lotzen dio.

10 BALIABIDEAK

HEZKUNTZA

CARBONELL SEBARROJA, J. (2014). *Pedagogías del siglo XXI*. Bartzelona: Editorial Octaedro.

HAINBAT EGILE (2008). *Pedagogías del siglo XX*. Bartzelona: Wolters Kluwer Educación.

IKASKETA ETA ZERBITZUA

BATLLE, ROSER (2013). *El Aprendizaje-Servicio en España: el contagio de una revolución pedagógica necesaria*. Madril: PPC.

BATLLE, R.; GARCÍA-VILLATORO, M.; PARPAL, C.; eta GARCÍA, M. (2015). "Dibujando caminos: el aprendizaje-servicio en la educación en el tiempo libre". *Profesorado. Revista de currículum y formación del profesorado*. 19(1). zk., 60.-77. or.

BATLLE, ROSER (koord.) (2015). *Evaluació dels aprenentatges en els projectes d'aprenentatge servei*. Bartzelona: Fundació Jaume Bofill.

CAMPAMENTS I MÉS (2013). *Guia per fer descoberta d'aprenentatge servei al medi natural*. Valdoeix: Minyons Escoltes i Guies de Catalunya.

MARTÍN GARCÍA, X. (koord.) (2012). *Per a una pedagogia del servei: Treball per projectes i ApS*. Minyons Escoltes i Guies de Catalunya. Bartzelona: Drecera.

MARTIN, X. (2016). *Proyectos con alma. Trabajo por proyectos con servicio a la comunidad*. Bartzelona: Graó.

PUIG, J.M. y OTROS (2015). *11 Ideas Clave ¿Cómo realizar un proyecto de Aprendizaje-Servicio?*. Bartzelona: Graó.

RUBIO SERRANO, L.; CAMPO, L. eta SEBASTIANI I OBRADOR, E.M. (coords.) (2014). *Aprendizaje servicio y educación física, experiencias de compromiso social a través de la actividad física y el deporte*. Bartzelona: INDE publicaciones.

STAIB DE CHANES, S.; GAONA, G.; eta TAPIA, M.N. (s.d). *Caminos de solidaridad*. Neuquén: Confederación Internacional Católica del Guidismo.

ZERBIKAS GIDAK

RUBIO, L. (2008). *Zerbikasen gidak, 0 zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioaren sakelako gida*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

PUIG, J. M. ETA MARTÍN, X. (2007). *Zerbikasen gidak, 1. zenbakia: Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

HERNÁNDEZ, C., LARRAURI, J. ETA MENDIA, R. (2009). *Zerbikasen gidak, 2. zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarrizko gaitasunak garatzea*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. ETA MORENO, V. (2010). *Zerbikasen gidak, 3. zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: gizarteratzeko estrategia*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2011). *Zerbikasen gidak, 4. zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: ekiten ikastea, erkidegoa zerbitzatzen*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2012). *Zerbikasen gidak, 5. zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: ikasketako proiektu integratua*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (2013). *Zerbikasen gidak, 6. zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: hezkuntzako laguntza*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

MENDIA, R. (koord.) (2016). *Zerbikasen gidak, 7. zenbakia: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: adineko pertsona aktiboak*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

CENTRE PROMOTOR D'APRENTATGE SERVEI. (2010). *Ekin I+Zri! Ikasi eta zerbitzatzeari buruzko gida praktikoa gazteentzat*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

BATLLE, R. (2013). *60 jardunbide egoki ikaskuntza zerbitzuan. Xede sozialeko esperientzia hezigarrien inbentarioa*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

HAINBAT EGILEREN ARTEAN. (2013). *GAB gazteak auzoan barrena. Ikasketa eta Zerbitzuko proiektu bat partekatzea eta hiri mailan gauzatzea*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.

AISI HEZI FUNDAZIOAREN ARGITALPENAK

Aproximación al enfoque educativo del tiempo libre en el siglo XXI. (Eztabaidarako dokumentua). Bilbo (2009).

Desafíos de las políticas públicas de infancia, adolescencia y juventud ante el tiempo libre educativo (Eztabaidarako dokumentua) Bilbo (2010).

Nuevos escenarios y agentes para la educación en el tiempo libre. (Documento de Debate). Bilbo (2016).

MENDIA, R. eta MADARIAGA, B. (2009). *Kanpamentu jasangarria lortzeko eskuliburua*. Bilbo.

Gida honen sustatzaile diren **ZERBIKAS Fundazioak eta AISI-HEZI Fundazioak** beren aitopena adierazi nahi diete, urteetan, herritartasun solidarioa eraikitzen ume eta gazteen astialdiko hezkuntzan aritu diren eta ari diren erakundeei.

Zorionak talde guztiei, handi nahiz txikiei, borondatez eta eginahalean lan egiten dutenei, astialdiko hezkuntzaren bidez eta Ikaskuntza zerbitzua praktikatu herritarrak prestatzen laguntzen dutelako, batzuetan horretaz jabetu ez arren. Eta era berezian bi erakunde zoriondu nahi ditugu, aurten urtemuga berezia ospatzen dutelako:



EUSKALERRIKO ESKAUTAK



2017an, 50. urteurrena ospatzen dute gazte mugimendu gisa, Bizkaian. Baden Powell-ek umeen eta gazteen garapenean funtsezko zirela antzemandako hezkuntzako postulatuak jarraitzen dituzte, “Beti prest” leman eta “Saiatu mundu hau aurkitu duzuen baino hobeto uzten” esaldi esanguratsuan laburbilduta.

Derioko (Bizkaia) NAHASTE BORRASTE ASTIALDIKO KLUBA



20 urte baino gehiagoan, klub eredu bat sortu zuen herriko ume eta gazteentzat, eskola publikoaren eta guraso elkartearen babesean.

Lehenengo monitorea herriko eskaut taldeko “Trebeak” adarretik etorri ziren, herritar konpromisoa zerbitzu hori emanez betetzen zutelarik. Ondoren, euren dinamika propioa eta prestakuntza prozesuak sortu zituzten, kideen herritar bizitzarako ikuspegi esanguratsua sortuz eta sustatuz.

IRUDIAK

LEHEN ORRIA. Lourdes Puertas eta Asier Sagasta.

4 ORRIA. AISI-HEZI.

7 ORRIA. ZERBIKAS.

9 ORRIA. Kultura/ Barakaldoko Udala.

12 ORRIA. paxbay.com

15 ORRIA. Kultura/ Barakaldoko Udala.

18 ORRIA. AISI-HEZI.

21 ORRIA. Kultura/ Barakaldoko Udala.

23 ORRIA. Kultura/ Barakaldoko Udala.

25 ORRIA. Kultura/ Barakaldoko Udala.

26 ORRIA. pixabay.com

“Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa Astialdi Hezitzailean” ZERBIKAS Fundazioaren eta AISI-HEZI Fundazioaren arteko lankidetzeta proiektu bat da.

ZERBIKAS Euskal Autonomia Erkidegoan Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa sustatzeko zentroa da. Ekimenak sortzen dituen espazioa da, Ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektuak ahalbidetu eta indartzera bideratutako ekintzak batzen dituen gunea. Zerbitzu publikoa emateko asmoa duen erakundea da. Ez da Administrazioaren menpekoa, eta Ikasketa eta zerbitzu solidarioa berrikuntzarekin eta hezkuntzaren kalitatearekin lotzen ditu. www.zerbikas.es

AISI-HEZI Fundazioa irabazi asmorik gabeko elkarte bat da. Haurtzaroaren, nerabezaroaren eta gaztaroaren hezkuntza osoa sustatzea du helburu, astialdian, arlo horretan lan egiten duten gizarte eragileei baliabideak eskainiz. AISI-HEZI Fundazioak Euskadiko astialdiaren eremurako erreferentzia izan nahi du, astialdiaren aurrerapenaren eta modernizazioaren alde jarriz eta erakundeen garapenean eragina izanez. www.aisi-hezi.org

Ekimenaren sustatzaileak:



Laguntzaileak:

